

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bermeoko Udala**

**Bermeoko udal mugapean, Lamerako 1. eta 2. kioskoen aprobetxamendu pribatiborako emakidaren lizitazioa arautuko duten oinarrien aldaketa puntualari buruzko iragarkia.**

2021eko urtarrilaren 29ko 226. zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, deialdia arautzen duten oinarrien aldaketa puntuala egin da. Lizitazioaren iragarkia honela gelditu da:

1. *Erakunde esleitzaila*
  - a) Erakundea: Bermeoko Udala.
  - b) Espedientea izapidetzen duen bulegoa: Idazkaritza Saila.
  - c) Espediente-zenbakia: 2020/IDA\_ERA\_0061.
2. *Dokumentazioa eta informazioa lortzea*
  - a) Bulegoa: Idazkaritza Saila.
  - b) Helbidea: Irakaskintza, 14-16.
  - c) Herria eta posta kodea: Bermeo, 48370.
  - d) Telefonoa: 946 179 105.
  - e) Webgunea: [www.bermeo.eus](http://www.bermeo.eus).
3. *Lizitazioaren xedea*
  - a) Mota: jabari publikoa ematea.
  - b) Deskribapena: Bermeoko udal mugapean, Lamerako 1 eta 2 kioskoen aprobetxamendu pribatiborako jabari publikoaren kontzesioa.
  - c) Iraupena: Herri-erabilerarako emakidaren iraupena 15 urtekoa izango da, emakida formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita, eta ezin izango da luzatu.
4. *Izapideak eta prozedura*
  - a) Tramitazioa: arrunta.
  - b) Prozedura: irekia.
  - c) Modua: enkantea.
  - d) Lizitaziorako gutxieneko tasa: 2.000,00 euro/urteko.
5. *Bermeak*
  - a) Behin-behineko bermea: ez da eskatzen.
  - b) Behin betiko bermea: esleipen-prezioaren %3.
- 6.- *Eskaintzak aurkeztea*
  - a) Aurkezteko azken eguna: hilabete, dagokion iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita. Epe hau 5 egun naturaletan luzatzen da.
  - b) Aurkeztu beharreko agiriak: lizitatzailaek bi gutunazal edo artxibo elektronikotan aurkeztuko dituzte beren proposamenak, Administrazio Klausula Berezien Agiri-ko 11. klausulan adierazitako moduan eta edukiarekin.
  - c) Aurkezteko modua:
    - Berhaz herritarrentzako arreta-bulegoan (Ertzilla kalea, 6-8, 48370, Bermeo).
    - Bermeoko kontratugilearen profilean: <https://bermeo.eus/1470.html>.
    - Legez aurreikusitako gainerako moduetan, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera



7. *Eskaintzak irekitzea*

- a) Erakundea: mahaia
- b) Eguna: Bermeoko Udalaren web orrian eta iragarki-taulan adierazitako eguna eta ordua.

Bermeon, 2021eko otsailaren 1ean.—Alkatea, Aritz Abaroa Cantuariense